



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteartea  
2010-05-18**

VIII. URTEA 2.003. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Edurne Pasabanek hamalaugarren zortzimilakoa egitea lortu du

**TOLOSA** Mendizalea eta espediziokideak, tartean Asier Izagirre tolosarra, gaur iritsiko dira oinarrizko kanpalekura

**ERRONKA** Munduko hamalau mendirik garaienak zapalduta Everest oxigenorik gabe igotzen saiatuko da 7



Aureskua dantzatu zuten bidea inauguratzeko. I. TERRADILLOS

## ASUNCIONERAKO SARBIDEA INAUGURATU DUTE

**TOLOSA** Bide berria Santa Lutzia auzoan, N-1 errepideak duen sarbidean, hasten da; orain herria zeharkatu gabe joan ahalko da klinikara 2

### Hasi dira Berrobi eta Lizartzako Kultur Asteak

**KULTURA** Lizartzan gaur, Errealeko jokalarien bisita izango dute 3



Berrobiko Kultur Astea buruhandiekini hasi dute. E. EZEIZA

## Diskoa kaleratu du Bertso Eskolak

**ALEGIA** 'Hustukoixkiu!' izenburupean estilo desberdinetako doinuekin hamar bertso musikatu dituzte; Bonberenean grabatu dute 5

**2010-2011 ikasturterako  
AURREMATRIKULA maiatzaren 31tik ekainaren 11ra**

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):  
Ile-apainketa**

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):  
Estetika**

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eredu):  
Apainketa Estetika pertsonala**

**GIPUZKOAKO IKASTETXE OFIZIAL BAKARRA. IKASKETAK DOAN**  
San Ignazio, 25 - Tel.: 943-13 42 23 Faxa: 943-89 41 96  
012291aa@hezkuntza.net - 20800 ZARAUTZ

**TITULAZIO OFIZIALAK**

**ceinpro**

**ERDI ETA GOI MAILAKO  
HEZIKETA ZIKLOAK  
DISEINU GRAFIKOAN**

**INFORMAZIOA 943 310 873**  
Haber Fundazioa 45 - 20090 Ibañeta - Bizkaia  
Tel. 943 310 873 - Fax 943 310 875 - www.ceinpro.net

**Nazioarteko Lehiaketak  
Praktikak atzerrian**

**UNIBERTSITATEA**

# Asuncion klinikak zuzeneko sarbidea du N-1-etik

**Azpiegiturak** » Santa Lutzia auzoan, N-1 errepideak duen sarbidean hasten da bide berria; 2,5 milioi euro kostatu da.

INIGO TERRADILLOS

11 hilabete iraun duten lanen ostean, erabiltzeko prest dago Asuncion klinikarako bide berria. Ondorioz, aurrerantzean, Tolosako herrigunea zeharkatu gabe joan ahalko da bertara, Santa Lutzia auzoan, N-1 errepideko sarbidean egokitu baitute bide berria. 2,5 milioi euro kostatu da errepidea egitea, Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu du, eta Galdiano eraikuntzak enpresak eraiki du.

Oraingo arte eskualdeko klinikara Santa Klara komentuan hasten den bidetik joan zitekeen soilik. Hemendik aurrera, bigarren aukera bat ere izango da. Bide berria bereziki garrantzitsua izango da Tolosan bizi ez diren eskualdeko herritarrentzat, herrigunea zeharkatu gabe igo ahalko baitute osa-



Erakundeetako ordezkariak zinta moztearekin batera zabaldu zuten atzo errepide berria ofizialki. I.T.

sun-etxera. Halaber, Izaskun auzoan bizi direnek N-1 errepidera zuzenean irteerako aukera izango dute.

Bideak 800 metroko luzera du. Santa Lutzia auzoan, N-1 errepidearen sarbidearen ondoren, autobidearen zubiaren azpian hasten da, eta Izaskunera doan bidearekin

egiten du bat, Asuncion klinikaren aldamenean. Obren iraupena zazpi hilabetea izango zela aurreikusituz, eta honen aurrekontua 1,8 milioi eurokoa izatea espero zuten. Azkenean, ordea, 11 hilabete iraun dute lanek eta 2,5 milioi euroko kostua izan dute. «Abendura ko amaizuta zeuden lanak, baina

zati batean lur erorketak izan ziren, eta konpondu eta egokitu behar izangenuen, horregatik denbora gehiago behar izan dugu amaizteko, eta kostua azkenean handiagoa izan da», azaldu zuten atzo eginiko aurkezpenean Asis Hernandok, Galdiano eraikuntzen arduradunak.

## «Aspaldiko proiektua errealitate bilakatuta»

Jokin Bildarratz Tolosako alkateak adierazi zuenez, «aspaldiko proiektua da Asuncionerako errepidea eraikitzearena, Jose Gurrutxaga alkate zela egin zutenekoa, eta azkenean errealitate bilakatu da». Alkatearen esanetan, komunikazioa «asko» hobetuko du bide berriak. «Bizi dugun egoera ekonomikoa ona ez izan arren horrelako proiektuak bultzatzea garrantzitsua eta eskertzekoa da, eta hori posible egiteko erakundeen arteko kudeaketa ezinbestekoa izan da», gehitu zuen.

Bestalde, Markel Olano Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak bide berriak Asuncion klinikarako iragarritasuna hobetuko duela, eta horrek herritarrei segurtasuna emango diela azaldu zuen. Eskualdean egingo diren proiektuen berri ere eman zuen Olanok: «N-1 errepidean zubi berriaren proiektua dugu eskuarte; bereziki garrantzitsua izango da irurarentzat, bertako trafikoa asko murriztea lortuko baitugu».

# Euskal Herriko eta Irlandako musika tradizionalaren uztarketa Topic-en

**Kultura** » 'The Basque Irish Connection' proiektuaz gozatzeko aukera izango da, gaur, 20:00etatik aurrera.

ERREDAKZIOA

Orozkon, Lantziegon eta Garesen aurkeztu etagero, Tolosara iritsitako da gaur *The Basque Irish Connection* proiektua. Irlandako eta Euskal Herriko musika tradizionala batzeko helburuz sorturiko eki-

mena da, eta Topic Txotxongiloen zentroan izango da emanaldia, 20:00etatik aurrera.

Proiektu honetan, euskal musika jartzeaz Ibon Koteron arduratzen da. Euskal musika tradizionalan musikari garrantzitsuenetako delako esan daiteke. Dultzaina eta txistua jotzen ditu, eta maisua da albokarekin, hainbat lan kalera- tuak dituelarik. Musikari bilbotarrak Niamh Ni Charraren gonbita jaso zuen duela urte eta erdi. Irlandarra ezaguna da bertako musika tradizionala jorratzen duelako, eta



Ibon Koteron, Gavin Ralston eta Niamh Ni Charra. HITZA

## » DATUAK

- **Emanaldia.** 'The Basque Irish Connection'.
- **Musikariak.** Ibon Koteron alboka, txistu eta dultzaina-jotzaile bilbotarra, Niamh Ni Charra kontzertina eta biolin-jotzaile irlandarra eta Gavin Ralston gitarra-jotzaile irlandarra.
- **Noiz.** Gaur, 20:00etan.
- **Non.** Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan.
- **Sarrera.** 12 euro. Leihatilan salgai.

batuketan emaitza «polita» izan dela azaltzen du, eta kontzertuetan giro «goxoa» sortzen dela. Bi lurraldeetako doinuak hartu dituzte, polkak, mazurkak edota dantzak, eta guztien artean nahastu. Abestiak ahotsik gabek eta kantatuak izan daitezke, eta kasu horretan, normalean egiten ez badute ere, Koteron eta Ni Charra dira abesten dutenak.

## Bi lurraldeetako musika batzea

Ez da lehen aldia Euskal Herriko eta Irlandako musikariak elkarrekin proiektu batean parte hartzen dutena. Koteronek dioten bezala, «hango abestiak hartu eta euskarazko hitzak jarri edota alderantziz ere egiten ikusi izan dugu, baina gurek haratago doan elkarreketa edo nahasketa bat izan nahi du, kolaborazio arrunt bat baino gehiago da». Horretarako, dioten bezala, «bi lurraldeetatik begiratzen jakin behar da».

Bada, esperimentu hau guztia zuzenean ikusteko aukera izango da gaur, Tolosako kontzertuan.

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Tolosa.** Apartamentua alokagai Tolosako Alde Zaharrean. Etxe berria, igogailua, berogailua eta sukaldea hornitua. Interesatuak deitu 665 70 93 80 zenbakira.

### BESTERIK

■ **Txakurkumea.** Arratoi txakurkumea hartuko nuke. Deitu 662 34 89 36 zenbakira.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Asteburu osoko irteera antolatu du Langostino Moto Kultur Elkarteak

**Ibarra** » Hilaren 29an aterako dira plazatik eta Nafarroako Acedo herrira joango dira; igande eguerdian itzuliko dira.

### ERREDAKZIOA

Hilabetea bukatzeko, asteburu osorako irteera antolatu du Langostino Moto Kultur Elkarteak. Hilaren 29an aterako dira San Bartolome plazatik, eta 30ean itzuliko dira.

Larunbatean, Acedoko (Nafarroa) kanpian igaroko dute, eta gero, igande goizean Ibarruntz abiatuko dira berriro. Antolatzaileek nahi duen oro gonbidatzen dute beraiekin jabetxe batean bazkaltzera. Izen emateko epea datorren asteazkenean, hilaren 26an, amaituko da. Horretarako, ondorengo kontu korrontean sartu behar da dirua: 3035 14 1841 4100 23232 (Euskadiko Kutxa). Asteburu irteeraren prezioa 30 eurokoa da, eta aste-buruarena, igandeko bazkariarekin, 45 eurokoa. Ordain agiria gorde eta irteeran eman beharko dute parte-hartzaileek.

Ibilbidea ondorengoa izango da, larunbatean, Ibarrik atera, eta Beasain, Segura, Zegama, Goialdea, Otzaurte, Egin, Albeniz, Zalduondo, Agurain, Opakua, Iturrieta, Roitegi, Ibisate, S. Vicente de Arana eta Santikurutze-Kanpezu-zeharkatuko dituzte, azkenik Acedora iristeko. Hurrengo egunean, goizean, hortik abiatu eta, Los arcos, Lizarra, Larraga, Mendigorria, Gares, Perdon mendatea, Astrain, Ororbia, Irurtzun, Lekumberrri, Betelu, Lizartza eta Tolosatik igaroko dira. Honela 14:00ak aldera iritsiko dira Ibarra.

## Laskorain eta Paz de Zigandako abesbatzen kontzertua lurreamendin

### ERREDAKZIOA

Gaur Laskorain eta Paz de Ziganda ikastoletako abesbatzeko kontzertua eskainiko dute lurreamendiko egoitzan. Kontzertua 11:00etan hasiko da.

Kontzertuak 30 minutu inguru iraungo du eta guztira 10-14 urte bitarteko 120 neska-mutilek parte hartuko dute. Kontzertua berezia izango da, izan ere, aurten Paz de Ziganda ikastola arduratuko baita Nafarroa Oinez jaialdia antolatzeaz.

# Haurrentzako nahiz helduenentzako ekitaldiak eskualdeko Kultur Asteetan

**Kultura** » Berrobi eta Lizartzan atzo eman zieten hasiera ekitaldiei; Iruran berriz, ostiraletik murgilduta daude.

### ERREDAKZIOA

Kultur Asteen hilabetea da oraingoa. Eskualdean, zenbait herritan joan den astean ekin zieten ekitaldiei, eta beste batzuetan berriz, atzo. Iruran hilaren 14an hasi ziren, eta igande honetan amaituko dute. Ekitaldien artean, atzo Memoria Tailerra izan zuten, eta baita risoterapia saioa ere. Gaur berriz, 12:00etatik aurrera izango da zer eginik. Besteak beste, jubilatuen jokoak, ipuin kontaketa eta hezkuntzaren inguruko hitzaldia izango dira. Berrobi eta Lizartzan ere kultur ekitaldiak nagusi dira atzotik. Berrobin, suziri jaurtiz eta buruhandekin hasi zuten eguna, Lizartzan berriz, Floren Aiozen hitzaldiarekin. Bigarren honekin, gaur Errealeko jokalariek izango dira bisitan. 20:00etan hasiko da kirolarien hizketaldia.



Berrobin, suziriak jaurti ostean, haur guztiak korrika aritu ziren, buruhandiek ez harrapatzeko. E. EZEIZA

### » BERROBIKO KULTUR ASTEA

#### Maiatzak 18, gaur

- **17:00.** Urreburuko gaztetxoek pilota partidak ikusteko aukera, herriko pilotalekuan.
- **18:15.** Sukaldaritza erakustaldia Tolosako Hernialde jabetxe Felix Garrido sukaldariarekin. Bide ona elkartearen izango da hau. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da etxolan. Bestalde, bertan prestatzen diren jakiak zozketatu egingo dira gero.

#### Maiatzak 19, bihar

- **17:00.** Kutxaren eskutik, Xurdi- n kontzertua izango da eskolan.

#### Maiatzak 20, etzi

- **18:30.** Berrobiko Iriarte jabetxe Felix Belauntzararen eskutik, sukaldaritza erakustaldia. Hemen ere prestatutako jakiak zozketatu egingo dituzte. Ekitaldia Bide Ona elkartearen izango da, eta haurtzaindegi zerbitzua eskainiko da.

#### Maiatzak 21, ostirala

- **17:30.** Berrobiko Herri Eskolako haurrek emanaldia eskainiko dute. Musika, antzerkia eta gehiago izango da bertan.

#### Maiatzak 22, larunbata

- **09:00.** Mendi ibilaldia Berrobitik abiatu, eta Leaburu nahiz Belauntzatik barrena.
- **16:00.** Mus Txapelketa solostokian.
- **17:30.** Erromeria Urnieta, Andoain, Villabona, Bidegoian eta Berrobiko gaztetxoekin.
- **Ondoren.** 21:00ak aldera arte trikitixa, Eneritz, Edurne eta Aitorrekin.
- **18:30.** Toka txapelketa solostoki aurrean.

#### Maiatzak 23, igandea

- **12:00.** Txakoli datatzeara egingo da, eta honi laguntzeko antxoilak eta gazta izango dira.



Zaharren biltokian memoria lantzeko saioa egin zuten atzo, Iruran. E. EZEIZA

## TOLOSAKO UDALA

### IRAGARKIA

**TOLOSAKO HIRI ORDENAZIOKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA PUNTUALAREN ESPEDIENTEA, "14.3 BERAZUBI IKASTETXEA" AZPI-ESPARRUARI BURUZKOA. BEHIN BETIKO ONESPENA**

Tolosako Udalbatzak, 2010eko apirilaren 27an egin zuen ohiko osoko bilkuran, besteak beste, izenburuan zehazten den espedienteari behin betiko onespena eman zion, zenbait baldintzarekin.

Erabakia behin betikoa da, eta bide administratiboari amaiera ematen dio. Erabakiaren kontra Administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Tolosan, 2010eko maiatzaren 12an.

BEHIN-BEHINEKO ALKATEA.

Jokin Azkue Arrastoa.

## TOLOSAKO UDALA

### IRAGARKIA

**"9.1 EUSKAL HERRIA PLAZA ETA INGURURNEA" AZPIESPARRUA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONESPENA (TESTU BATEGINA)**

Tolosako Udalbatzak, 2010eko apirilaren 27an egin zuen ohiko osoko bilkuran, besteak beste, "9.1 Euskal Herria Plaza eta Ingurunea" azpiesparrua Birgaitzeko Plan Bereziaren Testu Bateginari onespena eman zion.

Erabakia behin betikoa da, eta bide administratiboari amaiera ematen dio. Erabakiaren kontra Administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Tolosan, 2010eko maiatzaren 11n.

BEHIN-BEHINEKO ALKATEA.

Jokin Azkue Arrastoa

## Haimar Altuna presoaren senitartekoak bisitarik gabe geratu dira

### ERREDAKZIOA

Lizartzako Haimar Altuna euskal presoaren senitartekoak pasa den asteburu honetan bisean bisekorik gabe geratu direla salatu dute. Altuna Soto del Real espetxean dago, etxetik 500 kilometrorra, eta bisean bisekoa egiteko 85 urteko amona, ama, lehengusua eta arreba joan ziren. Bertan zeudela, funtzionarioak bisean bisekoa egiteko «arkutik» pasa behar zutela esan zien. Amona, ama eta lehengusua pasa ondoren, arrebari ez zioten deitu. Bukaeran, «anaia ikusi nahi baldin bazuen katxeatu egin behar zutela esan zioten presoaren arrebari». «Ez zuten arkutik pasa, zuzenean katxeatu egin nahi zuten». Eta zergatik? «Funtzionarioak berak onartu zuen bezala, berak nahi zuelako». Ama, amona eta lehengusua pasa baziren ere, arrebari ez zioten sartzen utzi eta eskubide urraketa hau salatzeke bisita bertan behera utzi zuten.

## Peio Olano lizartzarra gose greba mugagabeen dago

### ERREDAKZIOA

Lizartzako Peio Olano euskal preso gose greba mugagabeen dago Jaeneko espetxean dauden gaitzako euskal presoekin batera. Hilaren 10ean hasi zuten gose greba.

Jaenen dauden euskal preso politikoei zazpi hilabete daramatzate aurrez aurrekorik gabe eta horixe salatzeke hasi dute ekimena. Gose grebaren ondorioz, asteburu honetan ere aurrez aurrekorik gabe geratu dira Jaeneko espetxean dauden Jose Mari Sagardui Gatzta, Ibai Aginaga, Joseba Arregi, Kepa Arronategi eta Asier Garcia.

# 21 enpresen hizkuntza portaera aztertu du Udalak

**Aduna** » Galdeketa egin eta gero, etorkizunari begira, Udalak nolako laguntzak emango dituen aztertzen ari da.

### ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldearekin sinatutako hitzarmenaren bidez Adunako Udalak herriko enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko lehen urratsa eman du. Galtzaundirekin batera Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen aholkularitza ere izan dute.

UEMAK azaldutakoaren arabera, Galtzaundiko teknikari bat izan da herriko enpresekin hitz egiten, eta bertako arduradunen laguntzarekin euskararekin nola jokatzeko duten aztertu du. 21 enpresetako datuak bildu dituzte, eta etorkizunari begira, Udala nolako laguntzak emango dituen aztertzen ari da.

### 90 enpresa

Adunako enpresetan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoan, 21 enpresetako datuak bildu dituzten arren, Udalak 90 enpresekin ematen zuten galdeketei erantzuteko aukera.

Hainbat arrazoiengatik Udalak begiz jota zituen 10 enpresa bisita-

rik gabe geratu dira, baina Udalak ez ditu enpresa horiek etorkizuneko balizko egitasmoetatik kanpo utzi nahi, eta berriro saiatuko da haiekin harremanetan jartzen.

Enpresek euskararekin duten jarrerari dagokionez, denetarik datuak bildu ditu Udalak. Txarrean, Galtzaundiko teknikariak hitzordua jartzeko asmorik ere izan ez duten enpresak daude, eta, onean, aspalditik euskararen aldeko neurriak hartzen ari direnak. Horien artean, nabarmentzekoa da sei enpresek Bai Euskarari Ziurtzadura dutela. Honako hauek dira: Andretegi lore ekoizpena, Zumeta bizitokia, Zabala sagardotegia, Sointek, Hol-atz SA eta Refractarios Kelsen.

Dagoeneko neurriak hartzen hasita dauden enpresez gain, euskararen aldeko neurriak hartzeko prest daudela adierazi dute beste enpresabatueketa laguntza eskatu diote Udalarri. Horrenbestez, etorkizunean zer bideri ekingo dion erabaki beharko du Udalak, eta, besteak beste, diru laguntzak eta laguntza teknikoak bideratzeko moduak aztertzen ari da.

Diagnostikoari bukaera emateko, Udalak gutunak bidaliko dizkie enpresei Adunako lantokiak datu orokorrekin eta enpresa bakoitzak kontuan hartu beharreko datu nagusiekin.

### » GALDERAK

#### ■ Enpresaren izena euskaraz dago?

12 enpresek baietz erantzun dute eta bederatzik ezetz.

#### ■ Langileetatik erdiak gutxienez euskaldunak dira?

14k bai eta 5ek ez. 2k Ez dakite edota ez dute halakorik egiten.

#### ■ Enpresaren errotulazioan euskararekin erabiltzen duzue?

13k bai eta 8k ez.

#### ■ Publizitatean euskararekin erabiltzen duzue?

10ek bai eta hiruk ez. 8tan ez dakite edota ez dute halakorik egiten.

#### ■ Bezeroentzako agirietan euskararekin erabiltzen duzue?

8k bai eta 13k ez.

#### ■ Barne agirietan euskararekin erabiltzen duzue?

4k bai, 14k ez eta 3k ez dakite edota ez dute halakorik egiten.

#### ■ Baliabide informatikoetan euskararekin erabiltzen duzue?

3k bai, 8k ez eta 10ek ez dakite edota ez dute halakorik egiten.



Arantza Aburuza Adunako alkatea eta Galtzaundi Euskara Taldeko Nora Olano kidea hitzarmena sinatzen. HITZA

## «Enpresa munduan gaztelania oso zabalduta dago»

ARANTZA ABURUZA » Adunako alkatea

### ERREDAKZIOA

#### Zergatik erabaki zenuten enpresen munduan eragitea?

Herrira bera oso euskalduna izan arren, enpresa-munduan gaztelania oso zabalduta zegoelako. Horregatik, oso garrantzitsua iruditu zitzaigun arlo horretan eragitea, herriaren irudian eragin handia duelako enpresetan gaztelania hainbeste erabiltzeak.

#### Zer-nola ekiten dio Aduna bezalako udal txiki batek tamaina honetako egitasmo bati?

Lehen-lehenik, enpresa munduan zer bait egin behar genuela erabaki genuen Udaletik, eta UEMAko teknikariarekin harremanetan jarri ginen, zer egin genezakeen aztertzeko. Ondoren, arlo horretan lan egiten zuten enpresa batzuekin bilerak egin genituen: Elhuyar, Galtzaundi... Azkenik, enpresa horien eskaintzak aztertu ondoren, Galtzaundiren bidez diagnostikoa egitea erabaki genuen, egoeraren berri izateko.

#### Zergatik erabaki zenuten Galtzaundirekin hitzarmena sinatzea eta beste aukera batzuk baztertzeko?

Estreinakoz hastekotan ginen lanmuduan eragiten, eta, horregatik, oso garrantzitsua iruditu zitzaigun egoeraren berri jasotzea, aurrera begira zer urrats egin jakiteko. Galtzaundik enpresen egoera aztertzeko proposamena egin zigun, eta oso egokia iruditu zitzaigun, aurrera begira zer neurri hartu erabakitzeko abiapuntu bat izateko. Egitasmoaren hastapenetik Udalerri Euskaldunen Mankomunitate bidelagun izan duzue. Zer-no-

#### Iako ekarpena egin dio UEMAk egitasmoari?

UEMAk laguntza handia eman digu lanketa horretan. Hasiera batean, berak aholkatu zigun zer urrats egin behar genituen. Ondoren, gai horretan jarduten zuten enpresen izenak pasatu zizkigun, eta bileretan gurekin egon zen bere iritzia ere emateko. Azkenik, diagnostikoa egiteko prozesuan Galtzaundiko teknikariari laguntzen aritu da oneoro, eta aurrera begira nola jokatu erabakitzeko garaian ere gertutik laguntzen ari zaigu.

#### Zein da Udalak egitasmoaz egiten duen balantze orokorra? Zer nabarmenduko zenuke bildutako datuetatik, onean eta txarrean?

Oro har, oso aberasgarria iruditu zaigu egoeraren berri jasotzea, orain arte zantzuak baino ez baikenituen. Onean, oso gustura gelditu gara enpresa batzuen egoerarekin, jarrera ereduagarria dutela konturatu baikara. Txarrean, berriz, ez zaigu askorik gustatu enpresa batzuen jarrera, batzuek ez baitute bisitarik egiteko aukerarik eman eta beste batzuek ez baitute jarrera aldatzeko inolako interesik erakutsi.

#### Etorkizunera begira, zer egiteko asmoa duzue?

Oraindik ez dugu erabatu zehaztu zer neurri hartuko ditugun. Gutunak bidaltzeko asmoa dugu diagnostikoa parte hartu duten enpresa guztiei, eta, hortik aurrera, neurriak hartu nahi dituztenei laguntzeko zer egin erabaki beharko dugu. Argi dago lehen urratsa izan dela eta jarraipena izango dela.



## Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:  
Epergain  
Eraikuntzak eta  
Promozioak, S.L.  
Eraikitzen du:  
Aburuza  
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

# 'Hustukoixkiu!' diskoa kaleratu du Alegiako Bertso Eskolak

**Ber tsolaritza**» Estilo ezberdinetako doinuekin musikatu dituzte 10 bertsoak, Bonbereneako grabazio estudioan.

## AGURTZANE BELAUNZARAN

Bertsoak idatzi, musika sortu, grabazio estudioan sartu eta *Hustukoixkiu!* izeneko diskoa atera berri du Alegiako Zazpi Astoren Gainean Bertso Taldeak.

Bertso Eskolako zazpi bertsolarik; Garikoitz Zubillaga, Iker Laso, Iñaki Olano, Mikel Artola, Iker Iriarte, Felix Irazustabarrena eta Beñat Garmendiak egindako kantak dira.

Guztira hamar bertsoak osatzen dute argia ikusi berri duen diskoa. Beñat Garmendiaren *Hustukoixkiu!* bertsoak ematen dio izena diskoari: *sagardoa bertsoa lotura bikaina/ destinoak uzartu zitun alajaina/ kantuan nor baino nor/ edanda nahi aina/ proban jarri ohi zuten/ norberaren maña*. «Sagardotegiak eta bertsolaritza loturik egon dira eta diskoarentzako izen aproposa iruditu zitzaigun» aipatu du Beñat Garmendiak.

Diskoko bertso batzuk, Alegiako Bertso Paper Lehiaketan saritutakoak dira. Besteak, diskorako propio sortuak. Gaiei dagokienez ere «libreak» direla aipatu du Beñat Garmendiak. «Bakoitzak barruan duena hustu du bertso bakoitzean: maitasun istorioak, amo-



'Hustukoixkiu!' diskoan parte hartu duten Alegiako Bertso Eskolako kideak. HITZA

na zenari eskainitakoa, elkartearen museko partidan gertatua, udaberriko alergia, Txirritarekin elkarriketa...»

## Musika estilo ezberdinak

Andoni Zubillaga alegiarra arduratu da doinuaz eta moldaketaz. «Diskoan, bertso bakoitzak errima eta estilo ezberdinak ditu» azaldu du Beñat Garmendiak bertsolariak. Orain arte ezagutzen diren bertso musikatuak estilo berdinean egin

dira» azaldu du. «Gure diskoan, jazz, country, rumba, kalejira eta musika elektronikoa nahasten dira». Bertso musikatuak, «disko berezia» egin nahi izan dute Alegiako Bertso Eskolakoek.

Musika munduan eskarmentua duten laguntzaileak izan dituztela aipatu du Beñat Garmendiak: «Gozategi taldean eta Alex Ubagoen musikariak diren Imanol eta Iñigo Goikoetxea anaien laguntza izan dugu». Goikoetxeatarrek

«asko lagundu» diela azpimarratu du. Imanol Goikoetxeak, gitarra elektrikoa, akustikoa eta ahotsa jarri ditu eta Iñigo Goikoetxeak berri, baxua, txarangoa eta ahotsa. Ione Otxoa, anoetarrak ere kolaboratu du diskoan, *Heldu eskutik* kantuari ahotsa jarri baito.

Herriko musikariek ere parte hartu dute diskoan. *Desordutan* taldeko Julen Goikoetxeak perkusioa eta ahotsarekin eta Mirari Mendiazabalek panderoarekin la-

## » HUSTUKOIXKIU!

- **Estiloa.** Bertso musikatuak.
- **Taldea.** Zazpi Astoren gainean & Konpani.
- **Prezioa.** 10 euro.
- **Salmenta puntuak.** Alegian, Al-tzon eta Bertsolari Elkartearen.
- **Grabaketa.** Bonberenean.



gundu du. Damaso Zubeldia informatika teknikaria eta argazkilaria izan da.

Diskoaren azala eta diseinua Oskar Gerestia alegiarrarenak dira. Azalean, sagardo kupelak ageri dira izenburuari erreferentzia eginez eta 7 asto.

## Bonbereneako estudioan

Plazatik grabaketa estudioerako bidea hartu dute bertsolariak. Bonbereneako grabaketa estudioan 2009ko urrian sartu ziren eta hamabost egunen buruan, grabatu zituzten hamar abestiak.

Grabaketa estudio batera sartzen ziren «lehen aldian» dela aipatu du Beñat Garmendiak. «Bertsolariak plazan inprobisatu egin behar duen moduan, estudio lanean ondo abestea da kontua» azaldu du. Duela 3 urte, herriko bertso musikatuak kantatu zituztenean sortu zitzaien ideia. «Denbora asko eta lan ugari egin dugu, baina oso gustura» daudela esan du.



## Auzolana egin zuten Intxurren

**ALEGIA**» Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, larribatean auzolanean aritu ziren alegiarrak. Goizeko 09:00etan, Intxurren egin zuten hitzordura 18 lagun agertu ziren. Haizete gogorrek botatako adarrak Udaletxeko kamioira kargatu zituzten. Aterpea ere

margotu zuten eta inguruko iturriak garbitu eta bideak ere txukundu zituzten. Parriletako ikatzak ere garbitu zituzten, udaran jendeak erabil ditzan. Egindako lanaren ordainetan, hamaiketako bikaina jan zuten eta eguerdirako etxeratu ziren. **A8**

E **Emaizak****PILOTA**

<b>Lehenengo Mailako Buruz-buruko Txapelketa</b>	
<b>Abel Barriola</b>	18
Asier Olaizola	22
<b>Oinatz Bengoetxea</b>	10
Juan Martinez de Irujo	22

**Gipuzkoako Herria Arteko Txapelketa, final laurdenak**

<b>ALEGIA-OIARTZUN (JOANEKO)</b>	
Kadeteak	4-22
Jubenilak	22-11
Nagusiak	22-7

**Nafarroako Herri Arteko Txapelketa, ligaxka**

<b>LEITZA-LIZARRA</b>	
Alebinak	9-18
Infantilak	18-0
Jubenilak	22-4
Nagusiak	3-22

**Udaberri Txapelketa, 41/2**

<b>KADETE 2. MAILA</b>	
<b>Otegi (Aurrera-Saiatz)</b>	22
Irisarri (Sendikintza)	13

**JUBENILAK 1. MAILA**

<b>Barandiaran (Aurrera-Saiatz)</b>	22
Asurabarrena (Goierri)	10
<b>Gorostidi (Aurrera-Saiatz)</b>	22
Etxeberría (Urnieta)	8
<b>Perez Albeniz (Aurrera-Saiatz)</b>	22
Landa (Ilunpe)	20
<b>Balardi (Aurrera-Saiatz)</b>	11
Zabala (Ilunpe)	22
<b>Labaka (Aurrera-Saiatz)</b>	22
Atxa (Tartaloetxe)	10

**SENIORRAK 1. MAILA**

<b>Biaín (Aurrera-Saiatz)</b>	22
Mendia (Murumendi)	3
<b>Galarraga (Aurrera-Saiatz)</b>	22
Alonso (Intxurre)	21
<b>Otaegi (Aurrera-Saiatz)</b>	22
Arzelus (Lapke)	13
<b>Urbíeta (Aurrera-Saiatz)</b>	22
Agirre (Tartaloetxe)	11
<b>Jauregi (Aurrera-Saiatz)</b>	22
Ariznabarreta (Tartaloetxe)	18
<b>Perez (Aurrera-Saiatz)</b>	21
Amondarain (Murumendi)	22
<b>Barandiaran (Aurrera-Saiatz)</b>	22
Garmendia (Lapke)	18

<b>Montiel (Aurrera-Saiatz)</b>	13
Goikoetxea (Murumendi)	22
<b>Zabaleta (Aurrera-Saiatz)</b>	22
Ibarguren (Intxurre)	12

<b>Iruritako Emakumeen Paleta Goma Txapelketa</b>	
<b>Iera Agirre-Saioa Aristorena</b>	26
Yanira-Rebeka	30

**Zaramagako Txapelketa**

<b>KADETEAK, FINALERDIAK</b>	
<b>Sagastibeltza-Hernandorena</b>	4
Artola-Tolosa	22

**Añorgako Txapelketa**

<b>BENJAMINAK</b>	
<b>Txoperena-Hernandorena</b>	3
-	16

**Antiguoko Txapelketa**

<b>KADETEAK</b>	
<b>Olano</b>	20
Tolosa	22

**FUTBOLA**

<b>Erregional</b>	
<b>Ohorezko Maila</b>	
<b>Tolosa CF-Pasajes</b>	3-0

**SAILKAPENA**

1. Zarautz (69 p.); 2. Aurrera de Ondarroa (65 p.); 3. Pasajes (62 p.);	
<b>4. Tolosa CF (57 p.)</b>	

**1. Erregionala Igoera Fasea**

Mariño-Amaroz	2-0
---------------	-----

**SAILKAPENA**

1. Kostkas-Miren Bihotza (40 p.);	
2. Alerru (38p); 3. Mariño (37p.);	
<b>7. Amaroz (11 p.)</b>	

<b>Intxurre KKE-Irun</b>	1-1
--------------------------	-----

**SAILKAPENA**

1. Irun (42p.); 2. Sto. Tomas Lizeoa (39 p.); 3. Mondragon (34 p.);	
<b>4. Intxurre (30 p.)</b>	

**ARETO FUTBOLA**

<b>Nazional A Maila</b>	
<b>Lauburu KE-Burlata</b>	2-6
<b>SAILKAPENA</b>	
1. Zierbana (70 p.); 2. Zalatambor Area 99 (63p.); 3. Elemental Peñucas (60 p.);	
<b>4. Lauburu KE (59p.)</b>	

**Nazional B Maila**

Alerru Algep.-Transp. Lakunza 4-2	
Elorrioko Buskantza-Laskoraino-10	

**SAILKAPENA**

1. Alerru Algeposa (69p); 2. Laskorain Ikastola (67p.); 3. Concepto-Creatch (61 p);	
<b>10. Transportes Lakunza (31p.)</b>	

**SOKATIRA****Euskal Herriko Lur Gaineko Txapelketa, Berriatun****680 KILOTAN, 2. JARDUNALDIA**

1. Gaztedi	13 tanto
2. Goierri A	11 tanto
3. Mutriku	11 tanto
<b>4. Areso</b>	<b>6 tanto</b>
5. Getxo	Tanto bat
6. Goierri B	Tanto bat

**AIZKORA****Urrezko Aizkolariak, Leitzan**

<b>23URTEZ AZPIKOAK</b>	
Ugaitz Mugerza II.a	06:32"
<b>Arkaitz Olano</b>	07:22"

Oihan Larretxea	07:11"
Mugerza III.a	07:54"

Ruben Saralegi	08:04"
Kañamares	08:40"

**\* Mugerza II.a; Oihan Larretxea eta Ruben Saralegi finalerdietara sailkatu dira.****ELITE MAILAN**

Donato Larretxea	14:18"
Juan Jose Lopez Azpilikueta	14:55"

**Urrezko Aizkolariak, Zeanurin****JUBENILAK****1. Eneko Saralegi**

2. Mikel Ussia	
3. Eneko Otaño	
4. Gaizka Lopez	

**ELITE MAILAN**

Floren Nazabal	16:08"
<b>Anjel Arros pide</b>	18:04"

**GIZA PROBA****AMASA, 800 KG-KO HARRIA**

Orioko Heldu taldea	20 min. 31 plaza.
Aiztondo-Oarso	20 min. 33 plaza.

**MENDI MARATOIA**

<b>ZEGAMA-AIZKORRI</b>	
Luis Lasa Muñagorri (Ibarra)	
4 ordu 47 min. 49 seg.	
Jose Manuel Villegas (Tolosa)	4:58:03
Luis Eceizabarrena (Tolosa)	5:00:40

(beteranoetan hirugarren).

Iker Saizar Matxinea (Berastegi)	5:04:29
Imanol Zubillaga (Ibarra)	5:07:38
Pedro Garduño (Anoeta)	5:13:56
Ion Zubillaga (Berastegi)	5:15:01
Jose Ignacio Urdalleta (Ibarra)	5:19:43
Txomin Otegi (Asteasu)	5:19:57
Anjel Eizagirre (Lizartza)	5:22:24
Iñaki Sarasua (Asteasu)	5:23:53
Inaxio Zubillaga (Berastegi)	5:46:03

Joseba Beloki (Tolosa)	5:49:41
Iñigo Orkaiztegi (Tolosa)	5:55:16
Joxean Alberdi (Zizurkil)	5:58:07
Xabier Ibarbia (Zizurkil)	6:05:38
Josu Odriozola (Tolosa)	6:09:11
Patxi Kaminos (Abaltzisketa)	6:09:40
Xabier Goenaga (Tolosa)	6:10:03
Unai Ugartemendia (Alegia)	6:12:59

Fabian Aiceburu (Tolosa)	6:14:55
Luis Urruzola (Tolosa)	6:18:58
Iraitz Zubeldia (Abaltzisketa)	6:23:32
Marian Rosa Fresneda (Amasa)	7:41:45

**TRIATLOIA****VII. Iron-Cat****EMAKUMEZKOAK**

<b>1. Itsaso Leunda (Irura)</b>	11:41:03
Lehen zatia (3.800 metro igeri)	01:11:54
Bigarrena (180 km bizikletan)	07:03:06
Hirugarrena (42,2 km oinez)	03:26:03

**GIZONEZKOAK**

<b>17. Aitor Regillaga (Tolosa)</b>	10:44:54
<b>35. Asier Saez (Tolosa)</b>	11:14:34

**Laskorain Ikastolak 0-10 irabazi dio Elorrioko taldeari****ERREDAKZIOA**

Merezitako saria izango du aurtengoan Ikastolako taldeak, azken jardunaldian, Liga erabakiko duen norgehiagoka jokatzeko aukera izatea ez baita nolanhiko lorpena. Izan ere, kasualitateak horrela nahi izan eta sailkapeneko lehen bi sailkatuak nor baino nor izango ditugu datorren larunbatean Usabalen. Herri giro eta lagunartean osatuta, Liga Txapelketa bikaina burutu duten bitarte, lidertza sendo etorriko den Lezoko Allerru eta azken unean lidertza lapurtzen saiatuko den Laskorain.

Horretarako ordea, oso irteera zaila zuen Laskorainek Elorriora egin beharrekoa. Etxeko partida ia denak irabazita eta Ligako talde goletzailena den Elorriokori aurre egin behar izan baitzion. Larunbatean urdinez aritu ziren horitxoek ordea, defentsa bikaina erakutsi zuten. Endika atezainak geldiketa bikainak egin zituen.

Markagailuan aldeak handiak izan baziren ere tentsio handiaren jokatu beharreko partida izan zen larunbatekoa. Hasiera hasieratik harmailetako giroa oso beroa izan zen eta aurkaria ere oso bero irten zen kantxara, berotuegi agian. Atsedendira bitartean, Laskorainek kontraerasoan min handia egin zuen eta Joniko, Lander eta Murgiren golei esker bost goletako errentarekin itzuli ziren aldagelatarra.

Entrenatzailearen esana zintzo beteaz, jokalaririk horitxoek tentsio gorenean mantendu zuten bigarren zati osoan. Azkenean 0-10ekoarekin pozik itzuli ziren Tolosara, Javi delegatua, Jorge, Javi eta Imanol prestatzaileak, Endika, Lander, Beñat, Murgi, Gil, Barriola, Joniko, Txiki, Elola eta Aratz jokalaririk.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
**DOAN** agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Edurne Pasabanek bere ibilbideko hamalagarren zortzimilakoa igo du

**Tolosa** » Asier Izagirre tolosarra ere espedizioan aurkitzen da. Oinarritzko kanpalekura gaur iristea espero dute.

## ERREDAKZIOA


Edurne Pasaban eta Asier Izagirre tolosarrak atzo igo ziren Sisha Pangmara, 8.027 metro dituen mendira. Eurekin batera, Alex Chiconek eta Nacho Orvizek zapaldu zuten tontorra. Sherpa lanean berriz, lau kide eraman zituzten *Al filo de lo imposible* espedizio mendizaleek.

Gauzak horrela, Edurne Pasabanek atzo igo zuen bere ibilbideko hamalagarren zortzimilakoa. Ondorioz, lorpen hori gauzatzen duen bigarren emakume bilakatu da. Lehena Oh Eun-Sun mendizale izan zen; korearrak 2010eko apirilaren 27an igo zuen bere hamalagarrena. Asier Izagirrek bere aldetik, tamaina horretatik gorako sei mendi igo ditu.

Tontorra zapaldu ondoren, beharrezko bidea hartu zuten atzokoan. 3. kanpamendua bildu ostean, gaua bigarren goan igarotzea erabaki zuten. Gaur bertan iritsiko dira oinarritzko kanpamendura.

## «Eskerrik asko denoi»

«Hau dena amaitzeko urte asko behar izan ditut. Jende askori eman beharko nizkioke eskerrak baina hemendik denak aipatzea ezinezkoa da. Eskerrik asko denoi. Familiari, lagunei... 14 zortzimila-



Edurne Pasaban eta Asier Izagirre, euren kideekin, Sisha Pangma mendian gora. HITZA

koak igozten lagundu didazuen guztiei. Bihotz bihotzez eskerrak denoi. Asko maite zaituztet». Sisha Pangmako tontorra zapaldu ondoren, Pasabanek esan zituen lehen hitzak hauek izan ziren.

## Tolosako Alaba Kuttuna

Tolosako Udalak ohiko bilkura batean, Edurne Pasaban Alaba Kuttun izendatu zuen. Berari berria bideokonferentzia baten bidez azaldu zioten, Usabaldik. Haserako daten arabera, San Joanetan egingo dute ohore handiko ekitaldi hori.

Mendi ibilbideari dagokionez, jakina da Edurne Pasabanen hurrengo erronka. Izagirrek hilaren 7an azaldu zuenez, Pasabanek

Everest oxigenorik gabe igo nahi du. Hasieran joateko asmorik ez bazuen ere, Izagirre bera ere espedizio horretan egongo dela dirudi.

## ASTURIASKO PRINTZEAREN SARIETARA

Tolosako Kirol zinegotziak eta PSE-EEko kideak, Oscar Renedok, Edurne Pasaban zoriandu zuen atzokoan: «Guretzat, Edurne kirolaren balore handien adibidea da. Emakumearen irudia da, borrokalaria, espedizio bakoitzean duen guztia ematen duena, sakrifizioaren adibide garbia eta zailtasunen aurrean tinko eusten diona. Tolosaren izena mundu guztian zehar zabaltzen ari den enbaxadorea da».

Edurne Pasabanen taldekideak ere zoriandu ditu Renedok. Horretaz gain, PSE-EEko kideak azaldu zuenez, bere alderdiak Edurne Pasaban Asturiasko Printzearen sarietarako izendatuko omen du.

## » EDURNE PASABAN

### Hamalau zortzimilakoak

- **Everest (8.848 metro)**. 2011eko maiatzaren 23an.
- **Makalu (8.465 m)**. 2002ko maiatzaren 16an.
- **Cho Oyu (8.201 m)**. 2002ko urriaren 5ean.
- **Lhotse (8.516 m)**. 2003ko maiatzaren 26an.
- **Gasherbrum II (8.035 m)**. 2003ko uztailaren 19an.
- **Gasherbrum I (8.068 m)**. 2003ko uztailaren 26an.
- **K2 (8.611 m)**. 2004ko uztailaren 26an.
- **Nanga Parbat (8.125 m)**. 2005eko uztailaren 20an.
- **Broad Peak (8.047 m)**. 2007ko uztailaren 12an.
- **Dhaulagiri (8.167 m)**. 2008ko maiatzaren 1ean.
- **Manaslu (8.156 m)**. 2008ko urriaren 5ean.
- **Kangchenjunga (8.586 m)**. 2009ko maiatzaren 18an.
- **Annapurna (8.091 m)**. 2010eko apirilaren 17an.
- **Shisha Pangma (8.027 m)**. Atzo.

## » ASIER IZAGIRRE

### Zortzimilakoak

- **Broad Peak (8.047 m)**. 2007ko uztailaren 12an.
- **Dhaulagiri (8.167 m)**. 2008ko maiatzaren 1ean.
- **Manaslu (8.156 m)**. 2008ko urriaren 5ean.
- **Kangchenjunga (8.586 m)**. 2009ko maiatzaren 18an.
- **Annapurna (8.091 m)**. 2010eko apirilaren 17an.
- **Shisha Pangma (8.027 m)**. Atzo.

# Barriola eta Bengoetxea VI.a Buruz buruko txapelketatik at

**Pilota** » Bestalde, Alegiak eta Leitzak euren lehiak irabazi dituzte Herriarteko Txapelketan, Oiartzun eta Lizarraren aurka.

## ERREDAKZIOA

Abel Barriolak Lehen Mailako Banakako Txapelketari larunbatean agur esan ostean, herenegun bere herrikidearen txanda izan zen. Oinatz Bengoetxeak Juan Martinez

de Irujoaren aurka jokatu zuen li-gaxkako azken partida. Leitzarra saiatu zen arren Irujo erraz nagusitu zen, 22-10eko emaitzarekin.

## Herriarteko Txapelketak

Bestalde, Nafarroako Herriartekoan Leitzak Lizarra menderatu zuen larunbatean, zortzi tantoko errentaz.

Herenegun berriz, Gipuzkoako Herriartekoaren final laurdenak jokatu zituen Alegiak, joaneko partidak, eta 2-1 irabazi zion Oiartzu-

ni. Alegiako pilotalekua jendez lepo bete zen igande arratsaldean, herri giro bikaina izan zelarik.

Itzulerako partida asteburuan jokatuko da Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan. Irabaziz gero, finalerdietarako txartela lortuko dute alegiarrek. Berdintzen badutere tanteea oraingoz alde dute (8 tanto). Finalerdietarako txartela lortuz gero Andoain edo Hernani izango dituzte aurkari. Igandean bi taldeetako pilotariek elkarrekin afaltzen amaitu zuten.

**Gidariak** behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

**Lan publikoetarako** zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

**Telefonistak/harreragileak** behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

600-25 42 40

# Harpidedun egiten bazara aisialdirako bonu bat opari

Eroski Bidaiek eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

Gozatu berria



Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARRERAGILETARAKO

943-30 43 45 • harpidetza@berria.info



Uztailaren 15ean

Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIren harpidedunen artean. Eroski Bidaiek-en eskutik.



Orain, beste arrazoi bat BERRIren harpidedun izateko.

EROSKI / Bidaiek zuzen

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ berria



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegietta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Musika

■ **Tolosa.** *Basque Irish Connection* kontzertua Topic-en 20:00etan.

### Hitzaldia

■ **Lizartza.** Errealeko jokalariek hitzaldia eskainiko dute 20:00etan Kultur Astearren barruan.

### Kultura

■ **Irura.** Kultur Astea: 17:00etan jubilatuen jokoak Zaharren Biltokian; 17:00etan Gazte Lekuan lo-goia pintatzea; 17:30ean Pello Añorgarekin ipuin-kontaketa haur-txokoan; 17:30ean hitzaldia Plazako ikastolako aretoa: *Gurasoak eta seme-alaben hezkuntza, Heziketa bidexka bat da.*

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M. T. Euskal Herria kalea, 46. 943 67 32 74.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## Karrerari merezitako omenaldia

**IBARRA** ■ Jon Ander Karrera Ibarrauko Lauburu areto futboleko taldearen kapitaina omendu zuten asteburuan. 17 urte taldean egon ondoren, bere azken denboraldia bete du. Zoritxarrez, erdia bakarrik jokatu ahal izan du, lesio baten ondorioz. Omenaldian Lauburu jokalar, entrenatzaile,

zuzendaritza eta zaleez gain, Gipuzkoako Federazioko, Euskadiko Federazioko eta Ibarra Udaleko ordezkariak izan ziren. Argazkian Karrera, makurtuta eta bigarrena ezkerretik, bere taldekide guztiekin omenaldia jaso ondoren. K.I.S.K

## A Agurrak



### Zorionak!

**Nahia Martin Kortajarena (Zizurkil).**

Atzo 4 urte! Lau muxu potolo familiaren partetik!



### Zorionak!

**Aitor Munduate Zabala (Anoeta).**

Gure bihurriak gaur 2 urte. Muxu handi bat aitona, amona eta arreba Uxueren partez.



### Zorionak!

**Goret Oreja (Tolosa).**

Gaur 8 urte! Muxu potolo bat familiaren partetik!

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZ Aren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZ Aren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P,K:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia: